



PLAZAK NOLA ESLEITZEN DIREN LABURPENA

Plazen esleipenean hurrenkera hau jarraitzen da:

1.fasea

Fase honetan baldintzak betetzen dituzten eskaerak hurrenkera honetan esleitzen dira:

1º Aurreko ikasturtean matrikulatuta egon den ikaslea eta eskaera eskola eta hizkuntza berean egiten badu eta lehentasuna izateko baldintzak betetzen baditu. Eta beste HEOeko ikasle ofiziala, baldin eta bere eskolan ez bada eskaintzen dagokion maila. Ausazko zenbakiaren arabera ordenatuta. Ausazko zenbakia aplikazioak ematen du matrikula-eskaera bakoitza grabatzen denean.

2º Aurreko ikasturtean matrikulatuta egon den ikaslea eta eskaera beste eskola batean egiten badu eta lehentasuna izateko baldintzak betetzen baditu. Ausazko zenbakiaren arabera ordenatuta.

3º Aurreko ikasturtean matrikulatuta egon den ikaslea baina lehentasuna galdu izan du, eta matrikulatuta egon ez den ikaslea. Baremoaren arabera ordenatuta eta gero berdinketa hauste arauak jarraituz. Ikusi 14. Artikulua 2013ko uztailaren Agindukoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuena, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzeari buruzkoa. Berdinketa jarraituz gero, ausazko zenbakia kontuan hartuko da.

2.fasea

Bigarren fase hau hasten da lehenengo matrikulazio epea bukatzen denean, hutsik geratu diren plazak ez ordaintzeagatik betetzeko. Esleipenean hurrenkera hau jarraituko da:

1º.- 1.fasearen itxaron zerrenda. Lehenengo fasean plaza lortu ez duenak bigarren fase honetan automatikoki parte hartuko du. Ez du beste eskaerarik bete behar.

2º.- Ez ohiko deialdia. "Graziatzko" deialdia eskatu eta dagokion eskolak onartzen badu.

3º.- Epez kanpoko eskaerak. Matrikula-eskaeraren epe barruan eskaera bete ez duen ikasleak.

Aplikazioak jarraitzen duen hurrenkera esleipenean hau da:

Eskolaka:

Vitoria-Gasteiz
Donostia
Eibar
Irun
Tolosa
Ordizia
Bilbao
Getxo
Durango
Barakaldo
Bermeo

Basauri
Zalla
Santurtzi

Eta eskola bakoitzean, hizkuntzaka:

Ingelesa
Frantsesa
Alemana
Euskara
Errusiera
Espainola
Italiera
Portugesesa

Barematuta dauden eskaeraren artean hauek dira ezartzen diren berdinketa hausteko arauak:

Puntuazio guztizkoa berdina bada, zatika begiratzen da hurrenkera honetan:

Adinaren puntuak

Desgaitasun puntuak

Familia ugariaren puntuak

Irakaslearen puntuak

Berdinketan jarraituz gero, ausazko zenbakia hartzen da kontuan.

Aurrez aurreko fasea

Dagokion eskolan egingo da matrikula.

.....
.....